



EBALUAZIO-ERRUBRIKA - ARALAR
PROIEKTUAK.EUS - Gure naturagune babestuak



IRIZPIDEA	4-BIKAIN	3-OSO ONGI	2-NAHIKOA	1-ESKASA
Arazoaren azterketa eta argudiatzea, datu eta arrazoi zientifikoak erabiliz. (NNZZ 6.2 irizpidea)	Arazoa zehaztasunez definitzen da. Azterketa sakona eta kritikoa egiten da, hainbat iturri eta ebidentzia erabiliz; ikuspuntuak modu sinesgarrian azaltzen dira.	Modu argian definitzen eta deskribatzen da arazoa. Informazioa behar bezala aztertzen da, hainbat iturri erabiliz, eta ikuspuntu arrazoituak eta oinarrituak ateratzen dira, zehaztasun falta txikiren batekin.	Arazoa oinarritzko moduan definitzen da. Informazioaren oinarritzko azterketa egin da eta ikuspuntuak partzialki eta oinarri gutxirekin formulatzen dira.	Ez da argi definitzen arazoa. Ez da informazioa aztertzen edo oso azaletik egiten da, bakoitzaren ikuspuntua garbi utzi gabe.
Argitasuna eta koherentzia ahozko aurkezpenean. (EUS 3.1. irizpidea)	Hizkuntza formala eta egokia da, eta ideiak modu koherente eta arinean adierazten dira. Taldekideek modu orekatuan banatzen dute diskurtsoa, eta nabaritzen da alde zuzenetik entseatu dela.	Aurkezpena argia da eta egitura gehienbat logikoa da, baina zenbait puntutan koherentzia-arazo txikiak ditu. Hizkuntza zuzena da, baina antolaketa- edo adierazpen-akats txikiak daude.	Aurkezpenak nolabaiteko antolaketa erakusten du, baina diskurtsoa nahasgarria edo desegituratua izan da.	Aurkezpenak ez du egitura argirik eta zaila da jarraitzea. Hizkuntza desegokia edo desantolatua da, eta horrek mezu nagusia ulertzea eragotzi du.